



## **Telelana hezkuntza eremuan**

*2020-2021 ikasturtea*



**irakaskuntza**



## Hezkuntzaren alorrean telelanari buruzko proposama. 2020-2021 ikasturtea

### 2020-2021eko IKASTURTEA

Covid-19ak eragindako alarma estatutik eratorritako Salbuespen-egoera edo ezinbestekotasunak ikastetxeak ixtea behartu zuen. Ondoren, telelana eta hezkuntza eremuko jarduera baliabide digitalen bidez egin behar izatea impositatu da, eredu honetan eskarmenturik izan gabe eta azkarregi. Ikasturtearearen hasieran edo ikasturtean zehar birusaren gorakadaren arriskuak, modu arruntean, hezkuntza jarduera baliabide digitalen bidez burutzera eramanez gaitzake, edo *blended learning* (ikaskuntza erdipresentziala) modalitatea ezartzea. Azken finean, osorik edo partzialki telelana erabiltzera. Gure herrian, telelanak ez du berariazko araubiderik, ez bada, etxeko lanari buruz, Langileen Estatutuaren 13. artikulua ezartzen duena. Horregatik, CCOOetik arautzea eta klausulak ipintzea negoziatio kolektiboan.

Gainera, testuinguru digital batean gertatzen den guztiak, berehala, ardua soziala izatera pasatzen da. Informazio eta komunikazioaren teknologiak gizartearen txertatu dira, klik baten bidez zerbitzuak emanez, bat-batean gure beharrak asetzen dituzten erantzun automatikoekin. Horrela, gizartearen armonizazioa eman da, hezkuntzara ere iritsi daitekeena. CCOOen Irakaskuntza Federazioak ustez, hezkuntzarako ez da onuragarria, presentziala izan behar baitu, ezta irakasleentzako ere, araurik gabeko egoera batean beren lan baldintzak erabat aldatuta ikus baitezakete.

1994ko ekainaren 29ko aginduak, 1996ko urtarrilaren 26ko 82 eta 83 Edek Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzaren ikastetxeen antolaketa eta funtzionamendua zehazten dute non, Ikastetxeetako Araudi Organikoak ezartzen diren eta, ondoren, martxoaren 7ko 4/2019 Legak, unibertsitatekanpoko hezkuntzaren eremuan irakaskuntza jardueraren baldintzak hobetzeari buruzkoa.

Dena den, aipatutako araudi horietan ez da telelanarekin zerikusirik duen alderdirik azaltzen. Hezkuntza administrazioek emandako baliabide material urriekin, irakasleek erabakikortasunez ekin diote egoerari -gehienetan beren baliabide pertsonalekin- eta, kasu askotan, irakasleengan lanaren gainkarga eragin duena (ordutegi luzatuak, ikasle gehiagori arreta eman behar, tutoretza jarduera gehitzea...). Guzti honek, beste arazoaren artean, hezkuntza jarduera antolatzekeko oztopoetan ikusi da, kostua langilearen kontura, tresna eta baliabide pertsonak erabiltzea, gaitasun digitaletan prestakuntzarik eza eta ikaskuntza-irakaskuntza testuinguru berrieta egokitutako metodologiak, etab...

Unibertsitatearen eremuan dauzkagun erreferentzia bakarrak Unibertsitate pribatuaren hitzarmenaren I Eranskinean ezartzen direnak dira: *On linez* aritzen diren unibertsitateetarako. Aipatu eranskinaren 2. artikulua lan kontratuari buruzko zenbait alderdi ezartzen dira: borondatezkotasun printzipioa; itzulgarritasun printzipioa, hasieran modalitate presentzialerako kontratatutakoentzat, langileentzat zein enpresarako; Unibertsitateko instalazioetan jarduean ari diren langileekko berdintasun printzipioa, artikulua horretan zehaztutakoaren arabera; funtzioari egokitzeko irizpidea, hau da, *on linez* burutu ahal izatea; egokitasun irizpidea, berekin zera dakarrena: lana *on linez* burutzeko, langileek beharrezko baldintzak bete behar izatea.

Unibertsitatekanpoko hezkuntza pribatuaren eremuan ere, ez dago sektoreko hitzarmen kolektiboetan araudirik; horregatik, negoziatio kolektiboan derrigorrez sartu beharreko alderdia da-

CCOOen Irakaskuntza Federazioak telelanari eta ingurune digitaletako irakaskuntzari buruzko inkesta bat burutu du eta, beste bat, irakasleen prestakuntza beharrei buruzkoa, biak, konfinamenduan zehar burutuak. Konklusioak ondorengo alderdietan laburbil ditzakegu:

- Ingurune digitaletan irakasteko baliabide metodologiko eta didaktikoen urritasuna.
- Irakasleen arteko ezberdintasun digital nabarmenak.
- Curriculum-ak egokitzeko beharra.
- Ingurune digitalei eta lan arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntza urria.
- Lanaldi luzeak. Erantzun duen %83,5ak, maiz, ikasleen zalantzak argitzen pasa du. Egunero, lanorduetatik kanpo, asteburuak barne.

Esperientzia honetatik atera ditugun ikaskuntzak ezin dira ahaztu zeren, nahiz eta hezkuntza presentziala ordezkazina izan, zenbait alderdi geratzeko etorri baitira eta, ezein kasutan, ezin ditzakete irakaskuntzaren langileen lan baldintzen eta irakaskuntzaren kalitatearen okerragotzea eta/edo prekaritatea ekarri. Eta, batez ere, ikasleen hezkuntzarako eskubidearen erabileraren, aukeraberdintasunena, ekitate eta inklusibitatearena.

Pandemia berragertze edo hezkuntza administrazioek irakaskuntza erdipresentziala erabakitzea direla bide, eman daitekeen konfinamendu berri batekin, hurrengo ikasaturtearen antolaketak zera eskatzen du: lan modalitate honi estatu mailako araudi batetik ekitea, sektoreko hitzarmenetan zehaztuko dena eta, oinarrizko araudi izaera izango duena, Hezkuntza eta LHko Ministerioaren eta sindikatuen arteko negoziazio kolektiboan erabakitakoa.

4

## 1. Hezkuntza esparruan digitalizazio planerako inbertsioa

Eztabaidaezina da *on line*-ko ingurune digitaletan irakaskuntza arautzeak irakasleentzat zein sektoreko langileentzat zein ikasleentzat zein familientzat inbertsio plan batekin batera etorri behar duela. Ez da sareko jarduera emango, ikaskuntza-irakaskuntzan aritu behar dutenek ez badute aukera eta baliabiderik egiteko.

Covid-19ak sortutako osasun krisiak hezkuntza betekizunei Internet-en bidez ekiteko beharra ekareri du. Hau erronka handia izan da sistemarentzat eta agerian jarri ditu baliabideetako eta azpiegituretako defizitak, ikasleengan ezberdintasun digitalak nabarmenduz.

Dudarik gabe, Hezkuntza eta Lanbide Heziketaren eta Transformazio Digitala eta Ekonomia Gaietarako Ministerioen eta administrazio ezberdinen esparrutik ekin behar diegu arazo horiei.

Hasierako ezberdintasun digitala gainditu, beharrezkoa den konektibitatea bermatu eta hezkuntza hodea beharrezko materialez hornitzeko, derrigorrezkotzat jotzen da hasierako inbertsioa; gutxienez, 876.455.500 €.

Konfinamendu egoera berria, edo lan eredu bitarikoa aukeratu behar izatea ematen badira, lan hori burutzeko etxeetan beharrezko materiala dagoela ziurtatu beharko da.

Ezinbestekoa da, baliabide urriagoak dituztenei lehentasuna ematea baina, familia guztiak hartu behar dira kontuan. Izan ere, guztiek ez dute, kide guztientzat eta edozein ordutan, material informatikoa eta, gehienbat aldi berean.

Halaber, irakasle bakoitzeko ordenagailu bat dagoela bermatzeak, gutxienez, 119.503.184,21 €tako inbertsioa eskatuko luke.

Gainera. Hezkuntza administrazioek egun dauden ekipo informatikoak berritu behare dituzte, eta honek 26.556.263,16 €tako kopuru gehigarria eskatuko luke.

Bereziki kezkarriak dira hodeiko zerbitzuak ikasleentzat zein familientzat, “Deseskalada eta hezkuntza neurriak” CCOOen Irakaskuntza Federazioak egin berri duen dokumentuan jasotzen den bezala. Beharrezkoa da zerbitzu hau sendotzea dauden baliabideetarako sarbidea ermatuz, gutxienez, 368.455.500 €tako inbertsioarekin .

Dudarik gabe, guztiau estatuko agintarien eta autonomia administrazioen arteko itun baten barruan.

## 2. Telelana kontzeptua

Telelantzat honako hau hartzen da: enpresakoa ez den esparruan edo etxean ordu gehienetan edo lanordu osoan egiten den lan jarduera. Jarduera bat telelantzat edo distantziako lantzat hartu ahal izateko, beharrezkoa da, lanaldiaren %50 enpresako esparrutik kanpo burutzea, horretarako informazio eta komunikazio teknologia berriak (IKT) erabilia.

Teknologia berri hauei esker, zenbait eginkizun burutzeko ez da beharrezkoa enpresaren esparruan plantila osoa egotea; distantziara egin daiteke eta, horrela, eraginkortasun handiagoz, lan-bizitza eta familiaren bizitza uztartu ahal izatea.

Telelanaren kontzeptu honek hezkuntza eremuan bere berezitasunak ditu. Sektore honetako telelanak beste produkzio alorretan ematen diren inplikazio eta ondorioak ditu.

Horrela, ingurune birtualetako hezkuntza telelanak sektore honetako pertsonalaren, ikasleen zereginen aldaketak eskatzen ditu eta baita geletan, curriculum-ean eta metodologian. Beraz, lanaren baldintzen arautzetik haratago doa. Horregatik, arrakastaz erabiltzeko, hezkuntza elkarteak beharrezko eskumenez hornitu behar dira.

Garrantzitsua da, egoera normaltzeko, eragiteko lau esparru bereiztea, egoera berri honek honi eragiten baitio:

- Ikastetxeko lanaren antolaketari, telelanaren esparruari gehien dagokiona: betetako orduak, euskarri informatikoak, helburuak neurtzea, etab...
- Irakaskuntza jardueraren antolaketari, eremu metodologikoari gehien dagokiona, *blended learning* ereduak edo bitarikoak aplikatuta.
- Gaitasun digitalez hitz egin beharko dugu, diseinu denborak, garapen kurrikular egokitua, etab...
- Ikasketa ezberdinen. Metodologia berrien, kurrikulo egokituen bidez, etab..., Ikasleentzako rol berria ezagutza eraikitzean.
- Familiaren eremuan informazioa eta prestakuntza.

### 3. Telelanaren baldintza minimoak

Hezkuntza administrazioek, telelanaren programak onartu aurretik, langile guztiei baliabideak, prestakuntza eta plataforma informatikoak emar beharko zaizkie, telelanean ari diren et dagozkien hezkuntza Administrazioaren artean lotura elektronikoa bermatzeko eta baita ikastetxean lanean ari den guztien artean: ikasleak eta familiak.

Telelanerako baldintza minimoak ondorengo hauek dira:

- Hezkuntza plataforma uniformea, segurua eta egonkorra (hezkuntza hodeia), denboraldi luzeetan ikasle eta irakasle kopuru handiaren loturari aukera emateko eta beharrezko hezkuntza materialak dituen.
- Irakaskuntza jarduera emateko beharrezko zerbitzuak dituen ordenagailu pertsonala.
- Lotura nahikoa eta egokia lanbidea burutzeko.
- Posta elektronikoa kontua.
- Ingurune digitaletan irakasteko beharrezko den prestakuntza didaktikoa, metodologikoa eta digitala.
- Lan osasunean, arrisku psikosozial eta ergonomikoetan prestakuntza espezifiko.
- Proiektu pedagogiko malgua, hezkuntza sistemaren egitura zorrotzarekin hausten duena.
- Etxetan Internet sartzeko politika eta inbertsioak.

Nahiz ordenagailua eta lotura nahiz aplikazioek eta baliabide digitaletan administrazio ezberdinek darabilteekin bateragarri izan behar dute eta, beharrezkoa denean, bakoitzari dagokion Administrazioetik eskuratu beharko ditu.

Ezinbestekoa da zerbitzu teknikoak sortu eta gehitzea, beste betekizunen artean, lan ekipoak mantendu behar dutenak. Edozein gorabehera teknikoak ohartarazteko prozedura argi eta azkarrak ezarriko dira eta argibide guztiak jaso, horien arabera jokatzeko.

Gainera, Administrazio publikoak eta ikastetxe pribatuetako titularrek, lan honegatik zuzenean sortutako gastuak ordainduko dituzte eta, bereziki, jardueraren garapen zuzenerako beharrezko den laguntza teknikoari eta sareen bidezko komunikazioei loturikoak, konfidentziasuna, pribatutasuna, datuen babesa eta deskonexio digitala.

Ikuskatu beharko da, jarduera egingo den langilearen etxeak lan segurtasunari eta osasunari dagozkion baldintzak betetzen dituela. Lanbidea burutzeko bitarteko guztiak bermatuko dira, segurtasun eta osasun iripide orokorren arabera.

Kontsultei edo teleirakaskuntzari arreta emateko mugikor inteligenteen eta beste zenbait gailuren erabilera ezin daiteke suposatu. Arreta telefonikoa lanbiderako funtsezko zatia bada, horretarako terminalak zuzendu behar dira, baita, VOIP (Internet-en bidezko ahots deiak egin) bezalako beste komunikabideak aztertu.

#### 4. Lanorduen iraupena.

Inguru digitaletako irakaskuntzak ardura handiagoa eskatzen du eta, horregatik, ikasleenganako arreta eskola-ordutzat jotzea beharrezkoa da. Ikasleek denbora gehiago behar dute ikaskuntza prozesuaz jabetu eta edukiak ikasteko, eta baita erabat berria suerta daitekeen testuinguru sozial batean teknologiarekin elkarrekin eragiteko.

Testuinguru digitaletan, hezkuntzarako denbora metodologia aktibo ezberdinean oinarritu behar da eta irakaskuntza presentzialekiko ezberdina den modalitate honi egokitua. Testuinguru digitaletako hezkuntzak gaitasun eta trebetasun berriak gehitzen ditu: jakite teknologikoa, elkarrekin eragin eta lan egiteko modu berriari buruzko jakituria eta ikasle "teknologikoaren" ezagutza, edukia jakiteari, jakituria pedagogikoari, jakituria kurrikularrari gehitzen zaizkio. Gainera, beste gaitasunak indartzen ditu, hala nola, ikasten ikastekoa, ikasleen ikaskuntza autonomoaren prozesuetan eragiten duena.

Era berean, testu inguruetakoa hezkuntzak, ezinbestez, ebaluazio prozesuak berekin dakartza, ikaskuntzen ebaluazio formatibo batean, erabakikortasunez ezarri behar direnak eta kalifikazio hutsetik aldentuta.

8 Zentzu honetantxe, tutoretza (inoiz baino beharrezkoagoa) indartu eta aintzatetsi behar da, hezkuntza etapa guztietan eta beharrezkoak diren giza baliabide eta materialekin.

Talde edo ikasleen taldekatze bakoitzerako ordutegiak zehaztu behar dira; horrela, irakasleek eta hezkuntza laguntzakoek talde bakoitzari denbora eksklusiboa eskaini ahal izateko. Konfinamenduan eta distantziarako eskola jarduera jasotako esperientzian zehar zera egiaztatu da: *on line*-ko ingurune digitaletako jarduera lektiboa burutzeko egindako taldekatzeak eta eskolan bertan egindako jarduerarako diseinatzen direnak ez direla berdinak.

Eskola ordutegitik kanpo burutzeko komunikazio arauak ere definitu egin behar dira. Zentzu honetan, ordutegi zehatz baten barruan, irakaskuntza eta laguntza jarduera erraztuko duten irizpideak ezarri behar dira. Ingurune digitaletan impositu den errealitate berria hezkuntza denborak, eskolako ordutegian ongi egituratuak, ilundu egin ditu. Ordutegitik kanpo kontsultei erantzutea bezalako alderdiak, beste ikastaldeei arreta ematen ari zaienean, tutoretza, familiei emandako arreta, etab...ezin dira nagusitu "berehalokatasun"aren premisa pean, mundu digitalaren ezaugarri bereizgarrienetako bat dena.

#### 5. Datuen pribatutasuna eta segurtasuna zaindu.

Irakaskuntzaren eremuan, telelnaren erregimenean zerbitzu ematea, indarrean dagoen araudiak ezarritako segurtasun eta lan osasunaren aurreikuspenei lotuko zaizkie. Irakasleek eta hezkuntzaren gainerako langileek Lan Arriskuen Prebentzio Zerbituak emandako beharrezko prestakuntza jasko dute. Aipatu zerbitzuak zehaztuko du prestakuntza horren edukia eta iraunaldi minimoa non, telelanaren abantailak eta desabantailak aztertuko diren.

Gainera, *web*-aren esparruetan, datu edo baliabide pedagogikoak jaistean eta beste erakundeei edo pertsoneri helaraztean, segurtasun maila ebaluatu beharko da eta baita zaindu ere aplikazioen eta plataformen erabilerak ikasleen eta gainerako langileen datuen pribatutasunari eragin ez diezaion.

Telelanaren erregimenean zerbitzuak eskaintzeko ezarriko diren plataformak konfidentziasuna bermatuko dute. Bere babesaren erantzule datu-basearen den berbera izango da, datuen babesari buruzko araudiaren arabera.

## 6. Datuen babesari dagokien telelanaren erantzukizunak.

Telelana dela eta datuen babesari dagokionez, eta araudi espezifikorik egon ezean, hezkuntza administrazioek kontuan hartu beharko dute DBEDBLO eta DBAOak beren testuetan zehazten dutena, jarduera telematikoari eta komunikazioari arreta berezia emanez.

Gomendagarria da zenbait neurri jartzea, lanpostutik kanpo ekipo informatikoen zaintza eta segurtasuna mantentzen direla ziurtatzeko eta, beraz, gorde ditzaketen datuena:

- Ekipo eramangarriak ez utzi leku publikoetan atenditu gabe.
- Informazioa transmititzeko teknika kriptografikoak erabili, pasahitzak, *firewall*, antibirusak.
- Sarte pribatu edo VPN bat (*virtual private network*) sortu, ikastetxearekin edo beraien artean telelanean ari diren pertsonak elkarrekin harremanetan jartzeko. Honetan, zifratu batek Sarerako sarbidea babesten du, zaintza gehigarria emanez; baimenik ez duten hirugarrenek ezin daitezke beraren bidez partekatzen den informaziora sartu.
- Etxean, arriskuak ebaluatu eta beharrezkotzat eta egokitzat jotzen diren kontrolak hartu.
- Ez utzi ordenagailua erabil dezaketen eta baimenik ez duten beste pertsoneri (familiakoak, lagunak) informaziora iristen.
- Ez erabili *wifi* sare publikoak.
- Lanean ez gaudenean, ordenagailuaren pantaila blokeatu.
- Kontuz, USB memorien erabilerarekin, horietatik *malware* motako birusak sar baitaitezke.
- Aplikazioen instalazioa saihestu edo seguruak ez diren orrialdeetan nabigatu.
- Zerbitzarietara eta web tokietara konexio guztiak itxi, "saioa itxi" edo "deskonektatu" erabiliz.
- Deskarga karpetetan, birziklatze paperontzian, etab.. informazio tenporala ezabatu.
- Nabigazio historiala, *cookie*-ak eta beste datuak, eta baita gogoratutako pasahitzak.
- Telelanerako ekipo pertsonal bat erabiliz gero, aurreko gomendio guzti horiek jarraitzeaz gainera, garrantzitsua da profil profesional bat sortzea kontuak eta nabigazioa bereizturik uzteko.

Gainera, tableten, ikastetxeko zein bakoitzaren -baina lanerako erabilita- mugikor inteligentien erabilerarako, ondorengo segurtasun irizpide minimoak bete beharko lirateke:

- Pasahitzarekin, patroiakin edo antzekoarekin gailurako sarbidea blokeatu.
- Gailua lokalizatzeko neurriak hartu edo, galtze edo lapurreta kasuan, urrutitiko ezabaketa burutu ahal izateko.
- Gailuan gordetako informazioaren segurtasun kopiak egin.
- Sistema eragilea eta *softwar*-a bertsio berrienetara eguneratu.



- Antibirusak eduki edo neurriak hartu *malware*-a edo programa gaiztoak airreikusi eta detektatzeko.
- Erabiltzen ari ez diren (*bluetooth, NFC edo wifia*) haririk gabeko konexioak deskonektatu.

## 7. Distantziako lana estatu mailan erregulatzea.

Derrigorrezkoa zaigu distantziako lanari buruzko lege erregulatzailerik bat non, telelanak bete behar dituen baldintzak, arriskuak eta bermeak ezarriko diren (Covid-19aren krisialdian agertu diren gabeziak eta irakasleek, derrigorrez, etxetik lan egin beharra ikusita).

Lege honi dagokio atsedenerako eskubidea, deskonexioa digitala eta bateragarritasuna arautzea, kontuan hartu beharreko beste zenbaiten artean, hala nola, laneko segurtasuna edo irakasle guztien telelanaren izaera bolondresa edo ez bolondresa.

Nabari da, langilea bere etxean dagoenean, konektatzeko edo jardueraren bat egiteko prest dagoela eska dakioketela; hori dela eta, legeak, eskola orduen artean, atsedenerako derrigorrezko tartekak arautu beharko ditu.

Ilde beretik, gainera, deskonexio digitalerako eskubidea bermatu behar da. Eskola orduak bukatu ondoren, bai irakasleek bai hezkuntza laguntzakoek bere lanaz deskonektatzeko eskubidea dute, ikastetxeetako zuzendaritzan, familien, ikasleen posta elektronikoei zein deiei erantzuteko derrigorrezkotasunik gabe. Además, en esa línea, se debe garantizar el derecho a la desconexión digital. Una vez terminada la hurrengo lan egunerarte. Beharrezkoa da arau batzuk ituntzea eskubide horien produktibitatea zein mantentzea bermatuko dituztenak.

Halaber, etorkizuneko legeak adin txikikoak edo mendekoak bere gain dituzten irakasleen lana eta familia bateragarri egin beharko ditu, agian, lanorduak birformulatuz, zaintzak eta lana bateragarri egiteko.

Legeak, lan arriskuen ebaluazioa eta prebentzio egokia bermatuko duten arauak garatu beharko ditu. Beste hitzez esanda, irakasleen eta lan legepeko eta administrazio eta zerbitzuetako gainerako pertsonalaren arriskuen autoebaluazioa, etor daitekeen beste pandemina batean inplementatuko dena.

## 8. Telelanean ari den pertsonalaren eskubideak.

Ingurune birtualetan irakasten ari diren irakasleek eta lan legepeko eta administrazio eta zerbitzuetakoek, eskolan bertan irakasten ari direnean dituzten eskubide berberak izan behar dituzte, ikastetxe horretako langileak baitira. Prestakuntza iraunkorrerako aukera izan dezakete profesionalki hazteko, ordainketa, baimen eta lizentzia eta ordutegi berberak, etab... Gainera, ez du kostu gehigarririk ekarri behar, telelanean ari denak bere gain hartu behar duena.

## 9. Deskonexio digitala.

2018ko abenduaren 6ko DBEDBLOak nahiz 8/2019 Errege Dekretu-legeak langileen deskonexio digitalari buruzko eskubideaz hitz egiten digute eta baita telelanean ari diren aipamen berezia egin ere. Dena den, edozein lekutatik eta edozein ordutan lan egiteko aukerak eskubide hori lortzea konplika dezakete.

Ikastetxe barruan, hezkuntza alorreko pertsonalarentzat deskonexio digitala arazoa izan arren, -horregatik arautu behar izatea-, telelanean ari direnentzat oinarritzkoa bihurtzen den zerbait da. Horregatik, hezkuntza administrazioek beren mende dauden irakasleak eskubide honen jardueran hezi behar ditu, eskola orduetatik kanpo bere atsedena bermatzeko protokolo batez hornituta eta gehiegikeria egoerak ekiditeko.

Hezkuntza administrazioek eta langileen ordezkariak komunikazio teknologien erabilerari buruzko arau batzuk ezarri behar dituzte, atsedenaldira eta oporrak bermatzeko dituztenak.

## 10. Intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea.

10

2018ko abenduaren 6ko DBEDBLOak berritasunak ekarri zituen langileen intimitaterako eskubideari buruz, bi eremutan: Lehen eremuari dagokionez, hezkuntza Administrazioek edo ikastetxearen titulartasunak eta langileen ordezkariak gailu digitalak erabiltzeko irizpideak ezarri beharko dituzte, intimitatea babesteko estandar minimoei dagokienez (gogoratu, Konstituzioak bereziki babesten dituen funtsezko eskubidenetako batez ari garela hitz egiten). Funtsezkoa den beste alderdia norberaren irudiari eta jabetza intelektualari dagokiona da. Bitarteko digitalen bidez, materialak eta klase magistralak lantzeak ezin dezake eskubide horien galera ekarri. Mota honetako sorkuntzak eta/edo txostenak zabaltea, sortu ziren helburuetarako baino ezin da egin eta, beraz, horretarako baimenik izan ezean, bakarrik sortu ziren helburuetarako soilik erabiliko ira.

## 11. Telelana egiten den ikastetxeetako jokabide prebentiboak

• Horietako bat, datuak bistartzeko pantailen bidez (DBP) langileak berak bere lanpostua begiratzea eta, horrela, prebentzio neurri egokiak hartzea. Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzuak emandako ikastaro baten bidez, langileei bere lanpostua baloratzeko prestakuntza ematen zaie, autoegiaztatze zerrendaren bidez. Ikastaroan, DBPen erabileraren arriskuen berri emango zaie edo lanaren ingurogirotik eta ekipoak erabiltzetik datozenak. Halaber, arriskuak ezabatu edo murrizteko, horretarako beharrezkotzat jotzen diren prebentzio neurriak har ditzan, langileei prestakuntza emango zaie. Gainera, aurreko honen eta ondoko aldrdien berri emango zaie:

o Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzuaren egitura eta komunikatzeko era.

o Segurtasunaren eta Lan Osasunaren Komitea.

